

Enpresak



Lehen Aukera programa 2025 (EHAA 2025/12/27)





01

**Dirulaguntza jaso
dezaketen jarduerak**

Kontratu mugagabeak edo lanbide-praktika eskuratzeko prestakuntza-kontratuak

- EAEn dauden lan-zentroetako lanpostuetan jarduteko lan-kontratu mugagabeak eta gutxienez 6 hilabete irauten duten lanbide-praktika eskuratzeko prestakuntza-kontratuak; gazteok langabetuak eta dagokion zerbitzu publikoan enplegu- eskatzaile gisa izena emanda egon behar dute.
- **2025eko urriaren 31ra arte.**
- Lanaldi osoa edo partziala (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoa).
- Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailari edo trebakuntzari egokituta egon beharko du.
- Idatziz formalizatu beharko da, eta titulazioa, hasiera-eta amaiera-data, iraupena eta lanpostua Lehen Aukera programa eta, beharrezkoa bada, kontratu dagokion eskaintzaren erreferentzia aipatuz.
- Kontratazioek **enplegu sorrera garbia** eragin beharko dute, kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko sei hiletako batez besteko langile kopurua kontuan hartuz. Kontratazio-egunean, kontratu berriak lehen aipatutako batez bestekoa handitzea ekarri behar du. Azken ondorioetarako, adierazitako baldintza ez da betegabetzat hartuko kontratuak arrazoi hauengatik amaitu badira: bidezko diziplinazko kaleratzea, dimisioa, desgaitasuna, adinagatik erretiroa hartzea, lan-denbora borondatez murriztea, langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.
- Senidetasun-falta, 3.4. a) artikulua araberak
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein deialditan diruz lagungarriak diren jardueri lotuta gauza ez daitezkeen kontratuak, edo deialdi horien barruan diruz lagunduak izan ez direnak.

— **Urteko ordainsari gordina** kontratuan zehaztu beharko da eta deialdiaren 3.2.c) artikulua ezarritako gutxienekoen arabera egin beharko da:

Titulu akademikoa	Urteko gutxieneko ordainsari gordina (aparteko pagak barne)
Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana, Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa edo Unibertsitateko Gradua- Boloniako Plana	21.200,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	18.200,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I) eta Profesionaltasun Ziurtagiria	Indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata

Edonola ere, Langileen Estatutuan egiten diren aurreikuspenetara egokitu beharko dira, eta aplikatzekoa den gainerako arauetara ere.

02

Enpresak Onuradunak

Enpresa pribatuak (edozein dela ere haien forma juridikokoa), banako enpresaburuak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, elkarteak eta fundazioak, baldin eta hurrengo **baldintza hauek betetzen badituzte:**

- a. Helbide soziala eta fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
- b. Herri-administrazio batek edo gehiagok enpresa horretan % 50etik gorako partaidetza ez izatea, ez zuzenean ez zeharka.
- c. Enpresaren langileen legezko ordezkariak jakinarazi izana deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa dagoela. Enpresak berriaz adierazi beharko du eskabidean langileen legezko ordezkariarik duen ala ez.

Enpresa onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

- a. Zerga-betebeharral eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.
- b. Dirulaguntzaren arloko itzulketa-betebeharrak egunean izatea.
- c. Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapen penatik edo administratiborik, honako arrazoi hauengatik ezarritakoak barne:
 - Sexuagatiko diskriminazioa eragiteagatik edo, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazioa eragiteagatik.
- d. Ez izatea laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten dion legez ezarritako kausaren bat, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoak barne:
 - Ez edukitzea ezarrita neurririk sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena edota indarkeria sexualak prebenitu eta borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarrita dituen legeen arabera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan.
 - Ez izatea berdintasun-planik indarrean, baldin eta Estatuaren araudiaren arabera horretarabehartuta dagoen enpresa bada.
- e. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.
- f. 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetan, eta eskatzailea zuzenbide publikoko erakundea ez denean eta irabazi-asmoa duenean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 3 bis apartatuan aurreikusitako baldintzetan, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak betetzea.

Honako hauek ezingo dira izan onuradunak:

- Erakunde autonomoak.
- Sozietate publikoak.
- Administrazio publiko baten edo gehiagoren mendeko elkarteak edo erakundeak.
- Enpleguak lagatzeko aldi baterako laneko enpresak.

Dirulaguntzak **onartzeko** eta, hala badagokio, **ordaintzeko**, ezinbesteko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzultze- edo zigor-prozedura guztiak amaituta egotea.

03

Parte hartuko duten gazteak hautatzeko prozedura

Programan parte hartuko duten gazteen **hautaketa** (eta kontratazioa) eskabidea aurkeztu baino lehenago egingo da, prozedurahoni jarraituz:

1. Ikasketak amaitu dituzten prestakuntza-zentroaren bidez, enpresak zuzenean hautatuta.
2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren kolaboratzaile den erakunde baten bitartez.

01. Ikasketak bukatu dituen ikastetxearen bidez, entitate laguntzailea izatea.

Enpresak berak zuzenean, 2024tik aurrera titulazioa lortu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresako zentroetan 2024-2025 ikasturtean prestakuntza-aldi bat egin ondoren, formula hauetako baten pean:

- **Prestakuntza duala**, hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako titulua lortzeko prestakuntza denean.
- Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean ematen diren **bekak**, hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako titulazioa lortu aurretik enpresan egindako prestakuntzarako.
- Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean ematen diren **bekak**, enpresan prestakuntza emateko, unibertsitate-esparrutik lan-arlora igarotzeko.

Kontratatu aurretik, kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza-zentrori jobeharko du enpresak, baldin eta **trantsizio-prozesua kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko erakunde laguntzailearen** izaera lortu badu, zentroak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a) artikuluetan ezarritako eskakizunak betetzen direla eta 13.5 artikuluan deskribatutako gainerako inguruabarrak betetzen direla.

02. Lan eskaintzen kudeaketa

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren laguntzaile den erakunde baten bitartez, enpresak zuzenean hautaketan sartzan ez dituen gazteak kontratatuzeko:

- Hautaketa-mota honetarako, **eskaintza kudeatzeko eskaera bat** aurkeztu beharko da bete beharreko lanpostu-profil bakoitzeko. Eskaera hori inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztu behar da, «**Lehen Aukera eskaintza eskaera**»
- Eskaintza kudeatzeko eskabide bakoitza jasotzen duen bulegoak edo erakunde kolaboratzaileak erregistratuko du. Eskaintza erregistratu ondoren, enpresari jakinaraziko zaio haren erreferentzia.
 - **Lehen Aukera** emango zaie **Gazte Bermea Sistemako** datu-basean identifikatuta dauden pertsoneri, 5. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako baldintzetan.
 - Lehen Aukera programaren aurreko edizioen batean praktikaldia egiteko edo lanbide-praktika eskuratzeko prestakuntza jasotzeko kontratatu ziren pertsonak **kontratu mugagabearen modalitatean soilik** baldin eta kontratu mugagabea egiten duen enpresa **ez bada** praktiketako kontratua edo lanbide-praktika eskuratzekoa egin zuen **enpresa berbera**, lehendik ikasitako lan-esperientzia edozein dela ere.
- Eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bidalitako pertsoneri egindako kontratuak baizik ez dira diruz lagunduko.
- Kontratu bakoitzaren komunikazio prozesuan, enpresak nahitaez adierazi beharko du zein eskaintzari dagokion kontratu hori.

The background of the slide is a close-up, slightly blurred photograph of a desk. In the foreground, a portion of a grey calculator is visible, showing keys for '6', '3', '1', '+', and '='. To the right, a silver pen lies diagonally across a sheet of white grid paper. A ruler with black markings is also visible at the bottom of the frame, showing numbers like 25, 28, 31, 34, 37, 40, 43, 46, 49, 52, and 55. The overall lighting is soft and even.

04

Dirulaguntzaren zenbatekoa

Kontratu mugagabea edo Lanbide-praktika eskuratzeko prestakuntza-kontratua Titulazio Akademikoaren arabera	Lanbide-praktika eskuratzeko prestakuntza-kontratua		Kontratu mugagabea	Lanbide-praktika eskuratzeko prestakuntza-kontratua		Kontratu mugagabea
	12 hilabete baino gutxiagoko	12 hilabeteko dirulaguntza		12 hilabete baino gutxiagoko dirulaguntza (Emakumea)	12 hilabeteko dirulaguntza (Emakumea)	
Lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, masterra (Bologna plana), unibertsitate-diplomatura, ingeniaritza teknikoa, arkitektura teknikoa eta unibertsitate-gradua (Bologna plana)	5.300,00 €	8.480,00 €	12.700,00 €	5.830,00 €	9.328,00 €	13.970,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LHII)	4.550,00 €	7.280,00 €	10.900,00 €	5.005,00 €	8.008,00 €	11.990,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I) eta Profesionaltasun-ziurtagiriak	3.500,00 €	5.600,00 €	8.400,00 €	3.850,00 €	6.160,00 €	9.240,00 €

Aipatutako dirulaguntzen zenbatekoak lanaldi osoko kontratuei dagozkie. Denbora partzialeko kontratuetan, zenbatekoak lanaldiaren arabera doituko dira.

05

Eskaerak aurkeztea



Dirulaguntza eskatzeko epeak

Dirulaguntza eskaera guztiak **egoitza elektronikoaren bidez** aurkeztu behar dira helbide honetan: <https://euskadi.eus>, eta Lanbideren web orrian esteka bat jarri behar da.

ENPRESEN ESKAERA



Dirulaguntza eskaera kontratazioagatik:

EHAAn argitaratu eta biharamunetik **2025eko urriaren 31ra bitartean**

(diruz lagundu daitekeen kontratuaren azken eguna)

06

Dirulaguntzaren ordainketa



1.ordainketa: %49 → Dirulaguntza ematen denean (*)

2. ordainketa: %51 → edo zuzenketatik ateratzen den zenbatekoa (**)

(*) Lan-kontratuak egiteagatik dirulaguntza jasotzeko eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Egindako kontratuaren kopia, senidetasunik ez izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena eta enpresako batez besteko plantilla justifikatzea, bi txostenen bidez («Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena» izenekoak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindakoak -RED sistemaren bidez eskuratuak-, enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoak: bat, kontratatutako pertsonari enpresan alta eman aurreko 6 hilabeteko aldiari dagokiona, eta bestea, kontratazioaren alta-egunari dagokiona)

Gainera, enpresak zuzenean hautatutako gazteentzako kontratueterako, haiek ikasketak egin dituzten ikastetxearen laguntzarekin.(7.1.a) artikulua: Aurkeztutako kontratuan adierazitako titulua eskuratu izana egiaztatzen duen dokumentua eta Kontratua egin den enpresan prestakuntza-aldia egin izana egiaztatzen duen dokumentua

(**) Praktika profesionala lortzeko prestakuntza kontratuen kasuan kontratua amaitu eta hilabetera justifikatzea, kontratu mugagabeen kasuan hasi eta urtebete igaro ondoren, eta, betiere, **2025eko abenduaren 16a baino lehen**: Egindako lanbide-praktika jasotzen duen memoria eta «Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egina (RED sistemaren bidez eskuratu), enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoa, eta diruz lagundutako kontratuen aldiari dagokiona (12 hilabete, kontratu mugagabeen kasuan).



07

**Enpresa onuradunen
betebeharrak**

01 Erakunde onuradunen betebeharrak izango dira, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 14. eta 46. artikuluetan ezarritakoak, bai eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 50.2 artikuluan jasotakoak ere.

Bereziki, honako hauek:

- a. Kontratuak 7.1.a) artikuluan jasotako hautaketa-prozeduraren bidez egingo dituzten enpresek, kontratuak egin aurretik, kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza-zentrorako behar dute, ikastetxeak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a) artikuluetan ezarritako eskakizunak eta 13.5 artikuluan adierazitako kudeaketaren eta prozesuaren jarraipenaren gainerako xehetasunak betetzen direla.
- b. Kontratuak 7.1.b) artikuluan jasotako hautaketa-prozeduraren bidez egingo dituzten enpresek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo haren erakunde laguntzaile batean aurkeztu beharko dute enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskabidea.
- c. Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.
- d. Plantillaren enplegu-mailari eustea 9. artikuluan adierazitako kontratuen gutxieneko iraunaldian.
- e. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatzea laguntza jasotzeko eskakizunak eta baldintzak bete direla.
- f. Honako hauen egiaztatze-jarduketegi baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, eta Europako funtsen kontrol-instantziak.
- g. Helburu berberarekin administrazio honen bidez edo beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik dirulaguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

- h. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein baldintzaren aldaketa, baita diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari nabarmenki eragiten dion edozein gertakizun ere.
- i. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntzea jarduera horiek egiaztatzeko, haien jarraipena egiteko eta kontrolatzeko.
- j. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.
- k. Beren-beregi jasotzea edo adieraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketa –EAEko EGIF 2021-2027 EGIF Plus Programaren esparruan– deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduketan komunikazio, zabaltze, edo argitalpeneko material eta ekintza guztietan.
- l. Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunari buruzko betebeharrak:
- Bermatzea emakumeen eta gizonen tratu- edo aukera-berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa aplikatzen dela lanpostuei loturiko hautaprotetan, elkarrizketetan eta hautaketetan.
 - *Dokumentu, publizitate, irudi eta material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabili behar da, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu behar dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu behar dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna sustatzen dutenak.*
- m. Kontratatutako pertsonen adostasuna lortzea, haien datuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskura jartzeko, eskatutako dirulaguntza kudeatzeko soil-soilik, eta deialdi honen 24. artikuluan xedatutako edukiaren berri ematea kontratatuei.

02 Era berean, lanbide-praktika egiteko prestakuntza-kontratu bat amaitzean bete beharko den betebeharrak espezifikoki gisa, enpresa onuradunak ziurtagiri bat egin behar dio langileari, gutxienez honako hauek jasota:

- Kontratuaren iraupena.
- Betetako lanpostuak, eta bakoitzean egindako zeregin nagusiak.